

"Gerrako pilotu"
Antoine Saint-Exupery
euskaratzailea: Josu Zabaleta
Alberdania / Elkar, 2003

Ipar Euskal Herriko irakurleek, seguru asko, beste pertzepzio bat izango dute, baina Hegoaldeko literaturzaleentzat (eta frantsesaren hizkuntz eremutik kanpoko gainerakoentzat ere bai, apika) Antoine Saint-Exupery *Printze txikia* lan ezagunari lotua dago ezinbestez. Saint-Exupery ez da lan bakarreko idazlea, baina, beste hainbat kasutan jazo legez, lan bakar batek gaina hartu die gainerakoei eta hark egin du egilea ezagun mundu osoan barrena. *Printze txikia*, haur literaturaren klasiko ukaezina, munduko hizkuntza askotara itzultitako liburua, umetan gehienok irakurri duguna: batzuen ustez, sentsibilitatez beteriko istorio hunkigarria ("negarra eragin didan lehenengo eta azken liburua", lagun batek zioetan moduan; duela gutxi, Fun People hardcore taldeko abeslariari elkarrizketa egin nion eta konturatu nintzen, harriturik, Saint-Exuperyren pertsonaia besoetan tatuaturik zeramala); beste batzuen aburuz, ordea, goxoaren goxoz bihotzerrea sortzen duen ipuin mengel moralkeriaz betea.

Saint-Exuperyren gainerako lanetatik orain arte ez dugu izan bakar bat ere euskaraz irakurtzeko aukerarik, baina duela gutxi Alberdaniak eta Elkarrek *Gerrako pilotu* plazaratu dute, Josu Zabaletak itzulia, Literatura Unibertsala sailean. 1942an idatzia, *Printze txikia* baino urtebete lehenago, hemen ere, Saint-Exuperyren beste hainbat lanetan bezala, egileak hegazkin pilotu gisa izandako eskarmentua hartzen du oinarri eleberria idazteko.

Istoria xumea da oso: Saint-Exupery gerrako pilotu eta Errekonozimenduko 2/33 Hegazkin Taldeko kide da Bigarren Mundu Gerran. Naziak azkar asko ari dira Frantzia inbaditzen, armada frantziarra ez da eraso gerarazteko gauza eta etsipena nagusitzen hasia da. Ingurumari horretan, errekonozimendu misio bat agintzen diete Saint-Exupery eta beste bi laguni. Badakite horrelako hegaldietan abiatzen diren hiru hegazkinetatik bakarrak lortzen duela itzultzea; badakite, gainera, misio horretan lortuko duten informazio guztia alferrikakoa izango dela, armadako buruzagiekiko komunikazioa etenda dagoelako eta informazio hori nori helarazi ez dutelako. Eta, hala ere, abiatu egiten dira. Tiroketa jasango dute, baina, azkenean, bueltatzea lortuko dute.

Ikusten denez, anekdota txiki baten gainean eraikita dago eleberria. Mamia, baina, beste nonbait dago: hegaldian oroitzapenak, sentsazioak eta gogoetak tropelka datozkio gogora egileari, eta xehe-xehe kontatzen dizkigu. Hori da, hain zuzen, liburu honen funtsa.

Saint-Exuperyren ustez, eurek egiten dutena ez da gerra, gerraren simulakroa baino. Armada frantziarra gainbehera geldiezin batean amildurik dago, etsipenak jota, eta etsipen hori gizarte osora hedatzen da apurka-apurka. Egoera endekatu eta ustel horretan, gerraren absurdoa bere indar osoz agertzen da: herri osoak hustu egiten dira, herritarrek nora joan ez duten arren, buruzagiek ezertarako balio ez duten aginduak ematen dituzte eta agindu zentzugabe horiek betetzearren soldaduek bizia galtzen dute...

Eleberria erabat ideologikoa da, batez ere azken atala. Egileak moral zahaberritu bat proposatzen du egoerari buru egiteko, eta nazionalismo frantziarra eta mendebaldeko zibilizazioaren balioak sutuki goresten ditu. Baina, liburua amaitutakoan, irakurleari sentsazio arraroa gelditzen zaio, eta bere kautan pentsatzen du, egileak ziur aski oso bestelako helburuak eduki arren, liburu honetan agertzen dirten hainbat pasarte antimilitarismoaren antologia batean sar zitezkeela, nahiz eta paradoxa iruditu. Batzuetan, literaturaren bideak erabat bihurriak dira.